

Larraulgo liburutegiak goizez ere irekiko ditu ateaak asteazkenetan

Aste pare batetik hona, goizez ere badago Larraulgo liburutegira hurbiltzeko aukera. San Esteban plazako udaletxeko eraikinaren goiko solairuan kokatuta dagoen zerbitzuak, orain arte bezala, asteazkenero irekiko ditu ateaak, baina ohiko arratsaldeko ordutegiaz gain goizekoa ere eskainiko duela adierazi du Itsaso Gonzalez de Leiva liburuzainak.

Gauzak horrela, goizeko, 8etatik eguerdiko 1era eta arratsaldeko 5etatik 7etara egongo da irekia liburutegia.

Ordutegi honetan ere KZ guneko ordenadoreak erabilgarri egongo direla azpimarratu du liburutegiko arduradunak.

Liburu, bideo eta DVD maileguak egingo dira, eta baten batek idarokizunen bat edukiko balu larraul. liburutegia@gmail.com helbidera helaraztea dauka.

Ordutegi berri hau abian bada ere, martxoaren 10ean, funtzionamendu arazoengatik, itxita egongo da 10:30etatik 13:00etara.